

## INFORMAZIO OHARRA

### ***Aniztasuna eta bizikidetza Nafarroan: euskara eta nazio identitateak liburuaren aurkezpena***

*Gaur aurkeztutako lanak Aniztasunaren Kudeaketa Demokratikoa Nafarroan lan programaren ondorioak eta proposamenak biltzen ditu. Lana azken lau urteetan Eusko Ikaskuntza eta Nafarroako Gobernuaren, Euskarabidearen bidez, elkarlanaren emaitza da*

**Iruñea, 2023ko ekainak 22.** Gaur goizean, *Aniztasuna eta bizikidetza Nafarroan: euskara eta nazio identitateak* liburuak aurkeztu da Iruñeko Kondestable Jauregian. Ekitaldian parte hartu dute Ana Ollo Foru Gobernuko Hiritarrekiko Harremanetarako kontseilariak, Isabel Elizalde Eusko Ikaskuntzaren ordezkariak, eta Julen Zabalo eta Amaia Nausia Pimoulier proiektuaren zuzendari zientifiko eta arduradunak, hurrenez hurren.

*Aniztasuna eta bizikidetza Nafarroan: euskara eta nazio identitateak* liburuak jasotzen ditu *Aniztasunaren Kudeaketa Demokratikoa Nafarroan* izeneko lan programa parte-hartzaile, deliberatibo eta irekiaren deskribapena, ondorioak eta proposamenak. Proiektuak bi ardatz izan ditu: Nafarroako gizartearen berezko aniztasunean bizikidetza eta haren kudeaketa demokratikoa, gutxieneko oinarri adostuak bilatuta.

Aurkezpenaren hasieran, Isabel Elizalde nabarmendu duenez, “Eusko Ikaskuntza, bere ibilbide, ezaugarri eta izaeragatik, bereziki prestatuta dago honen mailako ikerketak egiteko”. “Gizarte-kohesioari laguntzea berezko aniztasunaren barruan” helburu estrategikoari jarraiki, *Aniztasunaren Kudeaketa Demokratikoa Nafarroan* izan da azken urteotako erakundearen proiektu nagusietako bat, Elizalderen arabera.

Ondoren, Ana Ollok hartu du hitza. Kontseilariak Nafarroako aniztasuna “bere indarguneetako bat” bezala defendatu du eta “euskarak gizarteari dakarkion aberastasuna” azpimarratu du. Nabarmendu du “ikerketa sozial honetan parte hartu dutenen hausnarketa berritzaile eta kritikoak, hizkuntza-politika egokiak garatzeko oso erabilgarriak direla”. Era berean, Eusko Ikaskuntzari eskerrak eman dizkio “eztabaidaren eta ikerketaren bidez herritarren bizikidetza hobetzen laguntzeko egindako lanagatik. Ahalegin hori -

gehitu du- Nafarroako Gobernuarekin partekatzen du gure aliantza instituzionalaren bidez”.

Amaia Nausia proiektuaren arduradunak laburbildu du 2019an hasierako diagnostikoa egin zenetik egindako ibilbidea. Diagnostiko horretan espezialistek parte hartu zuten, Nafarroako Baztan, Berriozar eta Castejon herrietan Herritarren Mahaiak eta Gizarte Foroak deitu aurreko urrats gisa. Hurrengo faseetan, Eusko Ikaskuntzaren Talde Eragilearen gidaritzapean, eragile sozial, politiko eta sindikalek, aditu akademikoek, Administrazioaren arduradunek eta, oro har, herritarrek erantzun zioten galdera honi: Posible al da Nafarroako gizartean bizikidetzaren eraikitzea aniztasuna errespetatuz? Horri erantzuteko, bilerak, jardunaldiak eta mintegiak antolatu ziren, gizarte-, kultura- eta politika-arloetako kolektibo eta pertsonen iritzia bildu zen eta, azkenik, Nafarroako gazteen ahotsa entzun zen. Adierazitako kezka eta iradokizunekin, eta ideologia desberdinetako pertsonekin kontrastatu ondoren, Eusko Ikaskuntzako Talde Eragileak hainbat proposamen egin ditu Administrazioari, Nafarroako gizarteari eta alderdi politiko guztiei zuzenduta.

*Aniztasuna eta bizikidetzaren Nafarroan: euskara eta nazio identitateak liburuak ikerketaren oinarri teorikoak eta agertu diren arazoak eta analisiak biltzen ditu. Emaitzarik esanguratsuenen artean, Julen Zabalo zuzendari zientifikoak nortasun nafarra badagoela nabarmendu du: “mundu guztia harro dago nafarra izateaz”. Onartzen da Nafarroa plurala dela, baina, hala ere, kultura demokratiko sendo baten falta sumatzen da, identitate sinbolo zilegi guztien onarpena bermatuko duena. Herritarrak kexu dira eztabaida sozial eta politikoan elkarrekiko errespeturik ez dagoelako.*

Lanaren emaitza erabakigarrietariko bat da euskal zein espainiar nazionalismoek nazio identitaterako ezaugarri gisa hizkuntzari ematen dioten garrantzia dela eta, nazio proiektuen arteko lehia euskararen gauzatzen dela. Euskal nazionalismoak uste du euskara nafar guztien hizkuntza dela, eta beraz, lurralde osoan bultzatu behar dela. Gainera, modu inplizitoan, uste du euskararekin batera eragin politikoa ere zabalduko duela. Paradoxa bada era, espainiar nazionalismoak bat egiten du ideia horrekin, eta beraz, ez du interes berezirik euskara biztanleria osoari hedatzeko. Azterketa honek uste du ideia hori ez dela zuzena, eta nekez heldu ahal izango dela hitzarmenetera bi nazionalismoek, eta haien ordezkari politikoek, ez badute gogoeta egiten horretaz, zeinaren ondorioz euskara, zoritxarrez, eztabaida eta mesfidantza iturri bihurtzen baita.



Euskara Nafarroako hizkuntzetako bat dela aho batez onartzen dela kontuan hartuta, eztabaida arrazionala eta adostasun soziopolitikoak bultzatzeko diskurtso berriak sortzea proposatzen da, hiru ardatz hauen inguruan:

- Euskararen ofizialtasuna lurralde osora zabaltzea, bi hizkuntzen berdintasun printzipioan oinarrituta.
- Herritar guztiei, pixkanaka, euskararen gutxieneko ezagutza bermatuko dieten hezkuntza-ereduak sustatzea.
- Administrazio publikoko lanpostuetan euskararen balorazioari buruzko eztabaida arrazionala eta lasaia.

Azterlanaren arabera, “Nafarroan bi proiektu nazional daude identitate nazional desberdinei bide ematen dietenak eta zilegi da haien helburuen bilaketa demokratikoa. Homogeneizatzeko asmoak alferrikakoak eta bizikidetzarako kaltegarriak dira”, jasotzen da ondorioetan. Giro polarizatuegia gainditzeko, lehia demokratikoaren arauak gehiago errespetatzearen alde egiten da. Horretarako, barne-komunikaziorako, eskualdeen arteko, herritarrentzako eta abarretarako espazioak sor litezke, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko elkarrizketa errazagoa izan dadin eta Administrazioa gehiago deszentralizatu dadin.

NOTA INFORMATIVA

## **Presentación del libro *Diversidad y convivencia en Navarra: el euskera y las identidades nacionales***

*La obra presentada hoy recoge las conclusiones y propuesta del programa de trabajo Gestión Democrática de la Diversidad en Navarra desarrollado durante los últimos cuatro años por Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos con apoyo del Gobierno de Navarra a través de Euskarabidea*

**Pamplona, 22 de junio de 2023.** Esta mañana en el Palacio Condestable de Pamplona se ha presentado el libro *Diversidad y convivencia en Navarra: el euskera y las identidades nacionales*. En el acto han tomado parte Ana Olo, consejera en funciones de Relaciones Ciudadanas del Gobierno Foral, Isabel Elizalde en representación de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, y Julen Zabalo y Amaia Nausia Pimoulier, Director científico y Responsable del proyecto, respectivamente.

El libro *Diversidad y convivencia en Navarra: el euskera y las identidades nacionales* recoge la descripción, las conclusiones y propuestas del programa de trabajo de carácter participativo, deliberativo y abierto titulado *Gestión Democrática de la Diversidad en Navarra*. El mismo ha pivotado en torno a dos ejes: la convivencia en la diversidad propia de la sociedad navarra, y su gestión democrática mediante la búsqueda de unas premisas mínimas consensuadas.

En la apertura de la presentación, Isabel Elizalde ha destacado que “Eusko Ikaskuntza, por su trayectoria, características y posicionamiento, se halla especialmente preparada para emprender investigaciones de la ambición de esta”. En línea con su objetivo estratégico de “contribuir a la cohesión social dentro de la diversidad propia” de la sociedad, *Gestión Democrática de la Diversidad en Navarra* ha sido uno de los principales proyectos de la entidad en los últimos años.

A continuación, ha tomado la palabra Ana Olo. La consejera, quien ha defendido la diversidad de Navarra como “una de sus fortalezas” y “la riqueza que aporta el euskera a la sociedad”, ha destacado “las reflexiones innovadoras y críticas de quienes han participado en esta investigación social por ser de gran utilidad para el cometido de desarrollar unas políticas lingüísticas adecuadas”. Asimismo, ha agradecido a Eusko Ikaskuntza “su esfuerzo por contribuir, a través del debate y el estudio, a la mejora de la convivencia ciudadana. Un empeño –ha añadido– compartido con el Gobierno de Navarra a través de nuestra alianza institucional”.

La Responsable del proyecto Amaia Nausia ha recapitulado el recorrido seguido desde que en 2019 se realizó un diagnóstico inicial con participación de especialistas, como paso previo a la convocatoria de Mesas Ciudadanas y Foros Sociales en las localidades navarras de Baztan, Berriozar y Castejón, representativas de la diversidad del territorio. En sucesivas fases, bajo el liderazgo del Grupo Motor de Eusko Ikaskuntza, agentes sociales, políticos y sindicales, expertas y expertos académicos, responsables de la Administración y ciudadanía en general buscaron respuesta a la pregunta: ¿Es posible construir la convivencia en la sociedad navarra desde el respeto a la diversidad? Para ello, se organizaron reuniones, jornadas y seminarios, se recabó la opinión de colectivos y personas de los ámbitos social, cultural y político y, por último, se escuchó lo que tenía que decir la juventud navarra. Con las preocupaciones y sugerencias manifestadas, y luego de contrastarlas con personas de diferentes ideologías, el Grupo Motor de Eusko Ikaskuntza ha elaborado una serie de propuestas dirigidas a la Administración, a la sociedad navarra y a todos los partidos políticos.

*Diversidad y convivencia en Navarra: el euskera y las identidades nacionales* recoge tanto las bases teóricas sobre las que se ha asentado la investigación, como las razones y los análisis que han ido apareciendo. Entre los resultados más significativos, Julen Zabalo, director científico, ha destacado la existencia de una identidad navarra: “todo el mundo está orgulloso de ser navarro”. Se admite que Navarra es plural, sin embargo, se echa en falta una sólida cultura democrática que garantice la aceptación de todos los legítimos símbolos de identidad. La ciudadanía se queja de que no exista el respeto mutuo en el debate social y político.

Una de las grandes conclusiones del trabajo es que la importancia que tanto el nacionalismo vasco como el español conceden a la lengua como elemento de identidad nacional, da como resultado que la disputa política entre proyectos nacionales se materialice en el euskera. El nacionalismo vasco considera que el euskera es la lengua de todos los navarros y navarras, por lo que su promoción es obligatoria en todo el territorio. Además, de una forma implícita, piensa que con el euskera se extenderá también su influencia política. Paradójicamente, el nacionalismo español también está convencido de esta idea, por lo que no muestra un especial interés en extender el euskera a toda la población. El estudio considera que esta idea es errónea y difícilmente se puede llegar a algún acuerdo si ambos nacionalismos, y sus representantes políticos, no reflexionan sobre el hecho de que, desgraciadamente, el euskera se convierta en fuente de polémica y desconfianza.



Partiendo de la aceptación unánime de que el euskera es una de las lenguas de Navarra, se propone generar nuevos discursos que favorezcan un debate racional y un consenso sociopolítico en torno a estos tres ejes:

- La oficialidad del euskera en todo el territorio, en base al principio de igualdad de ambas lenguas.
- La promoción de modelos educativos que de alguna forma permitan de manera paulatina un mínimo conocimiento del euskera a toda la ciudadanía.
- Una discusión racional y sosegada sobre la valoración del euskera en los puestos de trabajo de la Administración pública.

El trabajo estima que “en Navarra hay dos proyectos nacionales que dan pie a diferentes identidades nacionales y que es legítima la búsqueda democrática de sus correspondientes objetivos. Las intenciones homogeneizadoras son perjudiciales e inútiles para la convivencia”, se afirma en las conclusiones. A fin de superar el ambiente excesivamente polarizado, se apuesta por ahondar en el respeto de las normas de la confrontación democrática. Ello se podría favorecer con la creación de espacios de comunicación interna, interregional, ciudadana, etc., un diálogo más fluido entre el Norte y el Sur, así como una mayor descentralización administrativa.